

... /2023 FORU AGINDUA, ...aren ...(e)koa, Hezkuntzako kontseilariak emana, eskola-jantokiaren zerbitzua arautzeko foru dekretuaren proiektua prestatzeko prozedura hasten duena.

Uztailaren 24ko 246/1991 Foru Dekretuaren bidez, Nafarroako ikastetxe publiko ez-unibertsitarioetako eskolako jantokiak arautu ziren, derrigorrezko irakaskuntzaren mailetan.

Hezkuntza eta Kulturako kontseilariaren maiatzaren 11ko 186/1993 Foru Aginduaren bidez, berriz, garatu zen uztailaren 24ko 246/1991 Foru Dekretuan xedatutakoa (Nafarroako ikastetxe publiko ez-unibertsitarioetako eskolako jantokiak arautu zituen foru dekretu horrek).

Nafarroako gizartean gero eta ozenago eskatzen zaie administrazio publikoei hezkuntzarako sarbidea erraz dezaten. Horretarako, bada, neurri batzuk ezarri beharko dituzte, lagunduko dutenak lana eta familia bateragarri egiten, eta bide emanen dutenak gizonak eta emakumeak baldintza berberetan sartzea lan-munduan. Ildo horretan, agerikoa da eskola-jantokiak ematen duen zerbitzuak lagundu egiten diela familiei lan bizi eta seme-alaben zaintza egokia uztartzen.

Gizartean eta hezkuntza-sisteman izan diren aldaketak direla eta, komeni da eskola-jantokiaren zerbitzua arautzea, halako moduz non, batetik, bermatuko baita hezkuntzaren osagarri den zerbitzu hau ematea bai bizi diren herritik kanpo mugitu behar duten ikasleei bai egoera sozioekonomiko zaurgarrian bizi diren familia-unitateetako ikasleei, eta, bestetik, aukera emanen baitzaie ikastetxeei zerbitzu hau eskaintzeko hala nahi duten gainerako ikasleei.

Eskola-jantokiaren zerbitzua hezkuntzaren arloan txertatuta dago, eta alderdi hori nahitaez hartu behar da kontuan, hain zuzen, zerbitzua aprobetxatu eta indartzeko. Ikasleak jantoki-zerbitzua erabiliz ikastetxean ematen duen denborak onurak ekarri behar dizkie ikasleei zein familiei. Ikasleek eskubidea dute kalitatezko elikadura izateko, eta, orobat, denbora-tarte hori aprobetxatu eta prestakuntza integrala jasotzeko. Hezkuntza-jardueren bitartez, zenbait gaiei buruzko prestakuntza jasoko dute, hala nola elikadura- eta gizarte-ohiturak eta bizitza osasuntsuari lotutakoak; hori guztia, errespetuan eta bizikidetzan oinarritutako giroa lagun.

Horregatik guztiagatik, beharrezkoa da berriz arautzea jantokien arloa, Haur Hezkuntzako bigarren zikloa eta Lehen Hezkuntzako bigarren zikloa ematen duten Nafarroako ikastetxe publikoei eta Hezkuntza Bereziko ikastetxe publikoei dagokienez, errealitate horretara egokitzeko.

Hortaz, bat etorri Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 133. artikuluan xedatutakoarekin,

#### AGINTZEN DUT:

1.– Prozedura hastea, jantokien zerbitzua arautzeko foru dekretuaren aurreproiektua idazteko, Haur Hezkuntzako bigarren zikloa eta Lehen Hezkuntzako bigarren zikloa ematen duten Nafarroako ikastetxe publikoei eta Hezkuntza Bereziko ikastetxe publikoei dagokienez.

2.– Ikastetxeen Finantzaketaren, Ikasketetarako Laguntzen eta Zerbitzu Osagarrien Zerbitzua izendatzea hura prestatu eta izapidetzeko ardura duen organo.

2.–Foru agindu hau igortzea Hezkuntza Departamentuko Lanbide Heziketako, Digitalizazioko eta Hezkuntza Zerbitzuetako Zuzendaritza Nagusira, Ikastetxeen Finantzaketaren, Ikasketetarako Laguntzen eta Zerbitzu Osagarrien Zerbitzura eta Idazkaritza Tekniko Nagusira.

Iruñean, 2023.....(e)ko .....aren .....(e)(a)n.

HEZKUNTZAKO KONTSEILARIA

Carlos Gimeno Gurpegui